

BELJIKA'N, LEGEDI-ALDAKETA

Beljika-n oraintxe aldatu berri dute beren Legedia. Eta egin duten aldaketa ori, guretzat erakuside gerta dituzte, noski. Orain arte prantzesak ta aleman-izkuntza, emen gure euskeraz bezela atzeratuak zeuden politika ta aginte-alkietan.

Baia poliki-poliki flamendarrak ugaltzen eta erriko nagusi egiten asiak zeuden. Ta benetan ikasgarri dana: orain, flamendarrak nagusi-tu diran, len berei prantzes-izkuntzadunak egin izan ditena, egingo zitelana usteko dezute orain flamendarrak prantzes-izkuntzadunak.

Ba... ezta orrela izan. Ezta, beraz, flamendarrak, len min artuak zeuden eta ba-zekiten orrela baztertuak egotea nolako mingarri dan. Beraz, orain berak ez dute prantzes-izkuntzadunen pekatuan erori nai izan. Eta ikasteko da errien pakerako zer egin duten jakitea. Oraingo Legedi onetan, prantzes-izkuntzarentzat begira-pen osoa erakutsi dute, ta gutxiago diranen izkuntza alde guzietatik gordea uztea nai izan dute. Ezta, beraz, flamendarrak, ez aleman-izkuntzadunen aldetik begaiztorik egiteko asmorik agertu.

Izkuntza guzietakoak, berdin-berdinean artu dira, eskubidetan eta politika batasun barruan, denentzat errespeto osoa gorde da legetan.

Beljika-n, prantzes-izkuntzak agintari-maillan aurreneko lekua izan zuan Gobernuaren aldetik. Au, geinak bultzata baiño geiago sortu zuen XIX-garren gizaldiko giroak eragina. Beljika'ko Estadua antolatu zuen aldi aretan, prantzes oso onartua baitzan alde aietan.

Giro aretan, Gobernu ta auzidizien izkuntza zuen prantzesak, etzuan lan aundirik izan, flamendar-izkuntza ta aleman-izkuntza baztertzen. Ta ala zeuden urte aietan, prantzesak, Gobernuko izkuntza bakarra zalarik. Baia flamendarrak, alde batetik geiago ziran eta bestetik esnatu egin dira beren kultura-sailean. Orregatik, ikusia zegoen, flamendarrak ezizalake pakeatuko, beren izkuntza bear zuan lekuan ikusi arte. Ala, ba, gauzak bere onera etortzen joan dira, ta flamendarrak lege-bidean beren izkuntza nagusitu dute, prantzesaren parean.

Txeoslobakia-ren antzera, gertatu dira, beraz, gauzak Beljika-n ere. Iru izkuntzak legearen aurrean begira-pen berditze artuak izango dira.

Eztira, alabaia, gauzak berez etorri egoera ontara. Eskubideak iristeko, flamendarrak gogor jokatu bear izan dute Bruselas-en ta Lovaina-n. Bruselas, flamendar eskualdearen barruan zegoen prantzes-izkuntzadun ugarte bat bezela zuen. Gobernuak ezkeini zion laguntza-bidez, flamendarrak erdian egon arren, prantzes-izkuntza nagusitu zuen izkuntza ofiziala bezela. Lovaina-n, berriz, holandar-izkuntzadunen erdian dagoen flamendarrak Unibersidadea zeukaten; baiña bertako izkuntza erakutsi guzietan, frantsesa zebilen.

Flamendarrak, gero ta geiago jo zuten, beren eskubideak eskatzen eta orain, agiri danean, Beljika'k asmatu du elkarren errespetoan eta eskubide berditzean nola antolatu dituzken erriko sail desberdianak.

Munduko eskualde askotarako ikasbide ederra izango da auxe. Jainkoak izkuntza desberdinetako egin dituan erriak, ezin ditezke gogorren izkuntza bateratu. Erri bakotzak, Estaduren aurrean aukera ta eskubide berdinak bear dituzte beren aurrerapeneko jokoa-eran. Eta erriak jakintza kontutan, bere izkuntza du aurrean landu bearra. Ortarako au da bide zuzena: guziak legepean eta berditzean aurrera egin bear dute.

ITZA TA ESANA

Eleberri bat idazteko ez degu gairik, tokirik, gizonik behar. Gizona esanaren loturapean gelditu ta objektu birtuzten da. Berritsukeria ta asperraldia. Gizona izaren, eleberriaren jabe izan behar, itza, eleberria dira gizonaren jabe. Ekonomiku, politiku eta sozial loturak, «laguntzaileak» dira. Garrantzia izaren loturak izango du. Orain arteko azterketa ontan Robert-Grillet «Nouvel Roman» mugimenduko teori-kudari jarraitzen diot.

Izaren menpean: Wells ta «Ciudadano Kane». Kane'k bere egune-rokoaren bitartez U.S.A. menperatzea lortu. Ta gezurra dio «ni ameriketarra naiz» esaten duenean. Kane'k ameriketar klasea sortu du baiñan berak ez du klase orhan sartu nai. Ta onela, berak nahi duenean, naizta politiku-indar nabarmenik ez izan, U.S.A. gudara joango da. Baiñan gaur arte ez gera konturatu izaren —esanaren— politikatzaz. Esan guztia da politika. Itza, berez, garbiago da. Izaren garrantzia diruaren bitartez lortu da baiñan diru orrek ez du garrantzirik Kane ixiltzen ba zai-gu.

Ameriketa'ko elezioak zertan biturburten ari dira? Diruaren laguntza-

rekin itzak lortuko du nagusitza.

Berriketarako gogo, norbait zer-bait esan beharra, trixturaz beterik gaudenean norbait itzegiteak eman-tzen digun barealdia... Baiñan utsean gelditzen gera. Sistema da trixtura berritsukeriaren bitartez sendatzea eta sistema da, azkenik, bazter guz-tiak aspertzea.

Periodismua ez da beñere «arte» izango, berritsukeriaren langintza bezela artzen ba degu. Berritsukeri-geiten esaten dituan aldizkaria da «onena».

Baiñan itzak berez du arte eta in-darra. Odola. Esanak gaitzen du beti izaren balioa. Maitasuna zer da? Nereko itz ta aldatu egin behar da. Maitasuna zozokeri bat da. Abes-larien aonetan ta beste zenbait espal-ñetan itz onek ez du eren esan nahi. Maitasuna aini erreza ote da? «Ala-ko gizonak txakurrak maite ditu». Barkatu, baiñan au egia ba da, ez det maitasunik behar. Nahiago det utsean bizi.

Galduta gaude ixillik egoten ikas-ten ez degun bitartean. Mutuak lehenago iritxiko dira zeruetako erre-i-nura.

ANJEL LERTXUNDI

« TXISTULARI »

Aspalditik neukan asmoa. Gaur, nere lan mayean "Txistulari" errebistaren aikzen lumeroa ikustean, as-mo ori berritu eta bertatik betetzeko gogoia sortu zait.

"Txistulari"-k alderdi on asko ditu. Alde batetik jarraiberatasuna. Bestetik berriz bere burua eder azal-du ardura. Gure errian agertzen dan errebistatik doto-renetakoa auxe. Euskal liburutegi batean paltatu eziñe-ko errebista.

Badu baita ere "Txistulari"-k beste alderdi bat. Egin- aalako bideetatik beñiere irten nai ez izatea. Ezi-yak gaindu ez naia. Neurriari neurriya beti artzeko go-goa.

Jarrai beti xuxen-xuen norbere bideari. Gertatu di- tezela gertatzekoak, bideari jarrai. Segi beti...

Nork neurri dezake "Txistulari"-k egin duan lana? Musika gaietan gutxi dakiguentzat ere, errebista benetan atsegin eta erakustaldea.

Gure Euskalerrian eredu bikaina "Txistulari". Erre-bista onen omenez propaganda egitea benetan atsegin zaidala siñistu eizadute.

Eta errebistarekin batean gure txistulari apaieren gogomena.

Nork ez ditu maite gure txistulari umillak? Sasoi bat izan zuan, indar eta goibeltasuneko erlijio iritzi ba-tek, gure txistulari umillaren ueste okerra zabaldu zuana.

Aita Lhande, idazle bikain eta euskaltzale benetan

zintzoaren aitona txistularia zan. Fede aundiko gizon ona. Gutxi bezelakoa. Aita Lhande-k kontatzen digu li-buru batean. nola bere aitona, txistulari zan aldetik, etzekala elizans sartzerik, eta meza nola entzun bear izaten zuan. Eliz ate ertzetik. Kanpotik.

Orduan, eliz legeak ziran bezelakoak ziran. Orain berriz beste muga bazterreara joan gera danok. Soka-tik gegegi tira egin nai izateak ori dauka...

Bai igure txistulari maite-maiteak!

Oraindik ere igande eta pesta egun goizetan, txistu-lariak alaitzen dituzte Euskalerriko erri ta errikkak, gu-re biotz barreneara sartzen diran eresi zamurrez.

Euskal kutsuaen gordetzailerik bikainenetakoa txistulariak ditugu.

Igande eguadi askotan naiz Donostiko plaza zarrea, txistulariari entzuzera. Joaten dituzten erriak nere animari eztitasun gozoa dakarkiote.

Pozaren-poz egoten naiz txistulariari entzuten. Nere arima nekatuari biguintasuna dakarkio txisturen mu-sikak. Ume eta gazteko nintzaneko denborata narama-tike txistulariak. Gure nortasuna geiagotzen didate apa-ki barren-barrenean.

Jose, "Txistulari" errebista bezela, txistularien adixkide eta laguntzaile benetako diran guztiek!

Jose de Arteche

GIZONAK EGIN DITZAGUN

«UXOLA»

Joan dan urtean izandu diran goraberak, asko ed oguti asnar-tu ditugu gure barrukiko, eta zen-bait galdera ere bal egin. Neronek egin dio, bereziki egunotan ne-re baitan itzaletik argiñoa dagoen alde nabari izan detalako.

Galdera askoen artean nigan geien margotu dan galdera auxe izan da:

Bear aña saiatzen al gera gi-zonak gizontzen?

Eta galdera egosi dezadan aus-narrene nerabikiala, nere adiskide andoaindar baten itz batzuk oroz-tez itsatsi zaizkit buruan. Alegia, eralgintza batengana eskerturik dagoala oso, gizon egin zualako.

Danok izan gaituzte gazte. Ta danok bizi izan degu gartzaroen arrikkua. Gaztea beti dago irikia abots guzietara, aize ta sentimen

guzietara. Gazteak, sarri, zabalak izanik blotzez eta adimenez, ez da ainebestez argi izaten zentzumenez. Ematen zalon gutzia iresten du jakin-egarriaz, eta dijestio zailla urteetan luzatzen zailo.

Auetxek dira gazteen akats ba-tzuek, borondate onezko akatsak, noski baiñan naspillatzaile ez ain leialak ongi dakitenak bere mal-tzurkerizko idelak eta sentimenak txertatu ditzazkieken.

Itz politaz, teori apartsuaz, labo-ratorioko filosofokeriaz, sozial-opio okerraz, fedearen praktikotasun ezataz mintzaturik aixa mozkortu arazi litezke gazte borondatuesen adimenak, gaurko bere gogo-esa-emanik eta etorkizunarako illumpe beltza erefiatz.

Gizona, fruitu-zugaitz bat beze-lakoxea da. Gazte izan ta indar

artzen azten danean fruitu onaren txertua eman bear zailo. Ez dedi-la erre urte gutxien barruan neurririk kanpoko uzta eman arazi-z. Sendotzen lagundu bear zailo urte askotan bizi dedin emaitz oparoak emanaz, zarrzez liko dan arteño igallak eskefiatz.

Gazte dan gizona gizontu egin bear da ideia san ota eginkorrak txertatuz, sentimen garbi ta lu-zatzaileak itsatsiaz, zentzumenez-ko ardura eraginokorrak emanaz, justizi blotzduen baten argitara es-natuz eta etorkizun, luzea bear bada, baiñan itzaropentsu baten jabe egiatz.

Eta ideia ta sentime nsanoaz mintzatzen geranian, ez degu esan nai aldareetan daudene nriuden antzo, arriak bezin ote eta geldiak nai ditugunik, ez.

Gizonak nai ditugu, bere grin ta erori-aldiekin, baiñan ideia gar-bi, sano ta zentzudunak ematen di-tuzten doai ta itzaropenez jantziak gaindu dituzten izango dituzten erori-aldiak, berriro bere emariak emateko ere ngeabean. Eta eskul-dunak izan duten fedearik nai di-tugu, kristau fedea delako on-garririk balioetsua.

Zugaitza gasterik zuzendu bear da. Aitatu ditugun doai oiek ita tsi izan ez ba-zikigutien bear ba-da zenbaitzuk gaur lur jota geun-den. Baiñan ene adixkide andoain-darrak dion bezela zutirik eta it-xaropentsu bizirik gaituzte, gure erori-aldietan ere. Eta esker one-koa izatea gaur asko aitortu nai ez dan doai baldin ba-da ere, doai da ta onegaiuk aitortzen de-gu.

Ondorengoak orobat esan deza-te ngugatik, saiatu gaitzen gizon-gazteak gizontzen.

DE GAULLE QUIMPER'EN

De Gaulle Quimper'en bretoiñe-raz mintzatu zaie bretondarrei.

Mexikotarrei gazteleaz mintzatu zitzaizen behin batez, alemaniarrei alemaneraz, eta besteri askotan ber-rako mintzairaz. De Gaulle politiku zorrotza da; eta zorrotza dalako hartzen du oso aintzakotzat hizkun-tzaren garrantzia.

De Gaulle 1969-ko Otsaillean bre-toiñeraz mintzo: horra hor berri "zelebrea" zenbaiten uestez. Horra hor, nik uste, F.L.B. dalakoaren arrakasta haundi bat. Beste bat, ho-be. Zergatik aurrerakoan bretoiñe-raz eskolatik bazteruko? Egia aitortu behar da; eta egia hau da: F.L.B. dertizanak hitzeragin diola bretoi-ñeraz De Gaulle'ri, eta ez orain be-re "ameskeriak" kondenatzen dituz-ten sasi-abertzale txepelak. Ore ge-hiago: De Gaulle'ren hitzen ondo-riok haundiak izango baitira.

Folklore? Ez nik uste. Bretoiña'ko problema ez da gaurkoa; eta ez da folklore-problema bat. Afusilla-turik hil ziran abertzaleak ba zeki-ten. Irlanda'n deseriturik zahartzen diranek ba dakite. De Gaulle'k ere ba daki ongi: Hitler-zalekeria aipa-tzea erraza izan da, baiñan ez beti egia.

Ekonomia Bretoiña'n ba dago eko-

nomia-arazo bat: lan-eskasia bat, industriarik eza, gazteen joaira, eta abar. Dударik ez. Baiña Losere'n ere ekonomiazko problema horie-tzek daude; eta, halaz ere, Losere'n ez da F.L.B. bat sortu. Bretoiña'ko arazoa ez da soilik ekonomia-arazo bat; ez da batipat ere ekonomia-arazo bat. Bretoiña'n zapaldu-tako etnia bat dago.

Orain dala ehun urtetako leloke-riazko eta sasi-zientziako betekad-atik oraindik sendatu ez diran atzerakoiek ezin dute hau siñistu. "Nola liteke" —diote— "etnia-ara-zoak bigarren mailako alienazio burgesa besterik ez izanik, nola li-teke herriak egiazki horri lotzea, eta Bretoiña'ko kaka hizkuntza eta ultura burruka bat izatea? Eziña da. Monopolismoaren fenomenua ez da-gonean, ez dago ezer".

Baiña zalantza eta pentsamolde arkaiko horietatik oraindik jergin ez diranak zozo ulaenak diran beze-la (fanatiko guziak dira itsuak, eta horregatik fanatiko). De Gaulle ez da iñundik ere zozoa; eta garbiki aitortu du Quimper'en: hemen etnia-arazo larri bat dago fuinteen.

Ez dago gor gorrarik entzun nahi ez duen gerra baiño.

LARRESORO

Zeruko Argia

Zuzendaria:

ANTONIO ITURRIA

ASTIAZARAN

Naparroko-Kantauriko ta Ara-goiko Kaputxinoak argitaratua (Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22: Telf. 26666

ARPIDE SARIA:

Urtekoa 190 Pta.

Atzerrian 265 "

Aidez artu nai bada, galdetu.



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian